Urtarrilla - Enero
23
Astartia - Martes
Bilbao, 1934

EUZKADI

ARPIDE-SANEURRIJA

Bilbao'kua... ...	6,00	Irko.	Iru ile.
Bilbao'atazkua	7,50	"	"
Idazki-Itunmena	62,00	"	urtez
Atzarrijetakuak	100,00	"	"

Beldayen itunduba

XXII urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.° | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 6.592 zenbakija

Egunekua

Oldoztuten

Neguteko egun otz eguzkigetsubak oparo ta gentza donian igazteko, etxeko sukalde epela baño egokijagorik, ezebez.

Eta gentzazko egoera au gozatuteko, baiz, Irakaslia'ren Zeure gogo ta idazkoftzetik" deritxon oldozkun-idaztija baxen egokirik be eztala ixango deritxagu.

Idazti onek, ba, gixona, donokira begira iminden dau lenengo, gero abeſijatzaz aldoztuten imindeko

卐 卐 卐

Irakaslia, egun baten, iru edo lau adizkide lagun ebazala, "Laſazabal" deritxon Begoña'ko basetxe batera eldu ʒan, basetxe aretako ixiltasunian abeſkoyak baxen Jaungoikotijak diran itz oneik oguzteko.

"Jaun-Goikua eta Lagi-Zaſa ikuſitzak, nire adimena argiſu egin eban, eta nire adi gustija, beragandu; eta Jaun-Goikua eta Lagi-Zaſa, bijotzan josiſa geratu yatazan, geyago bertatik iñoz be ez atxinduteko."

Irakaslia'ren itz abeſkoi ta Jaungoikoti oneik, norbera be, bere jaſai iminden dabe, ta aren antzian, Jaun-Goikua eta Lagi-Zaſa Jel-ikuſitza edeſari begira.

Irakaslia'k ikasliokanatu euskun ikuſitza onek, bere atzalpena dau, ta olantxe atzaldu be egiten dausku: "Jaun-Goikua.—Euzkadi, baſutiko ageſkai gustijetan eta enparauko albo-eſijekazko aſtu-emonetan be, kistaſa, beldukoſa ta eſomataſa ixango da."

"Lagi-Zaſa.—Euzkadi, azke-azkerik beſ-eratuko da. Lagi-zaſak deitzen yakezan askitzazko Lagijen aldiña bere osotasun gustijakaz baſiztuko dau. Gure nagusijen oſura ta ekandu onak, lengoratu egingo dauz."

Sabin Irakasle argijak emon euskun Jel-ikuſitza onetan, uskuſtzearentzat irañik, irakuſle, beronen lau aldietatik bebegiratuta be ezin idoro leike, ezta Euzkadi euzkotaſon abeſi maiiarentzat oztasunik be.

Au ta gusti be baña gure eskuma-eskeſ-aldietako areyo puſukatubak, alde bijetatik salatuten gaiubez. Eskumaldeko areyuak, uſtzingetzat eta masoitzat esten gaiubez; eta eskeſaldekuak, ostera, lekaidetzat, eta abaſ. Gu, baſiz, bata ez, bestia, ezkara, Jaun-Goikua eta Lagi-Zaſa bij-k batera soin bat egiten daben Jel-ikuſitza 'ko euzko-abeſtzaliak baño.

卐 卐 卐

Irakaslia'ren oldozkun idaztira begiratu daigun, eta bere ingoskijetan euzko-kemena alde gustijetatik darijuela dagozan leſo oneik irakuſiko doguz: "Joputzea ixilian jasaten daben Eſija, azke ixateko gai eztan Eſiia da.

Soña estuntzaz lotuta daula, gogua azke ta jaso daukan Eſija, baña, zoritxaſekua ba-da be, jopu ezeskaſija ezta bein be ixango."

Irakaslia'ren oldozkun au; Euzkadi'ra begira idatzirikua da.

Euzkadi, España ta France'ri soña lotuta daulako bakaſik, ezta, ba, ezeskaſi, gogua atzeſiſaſtu yakalako baño.

Soña, goguaren azaleko janzkija bakaſik da; ilkoſa ta ustelkoſa.

Ustelkoſa eztana, gogua da. Eta ustelkoſa eztan euzko-gogo au benetan abeſtzaletuten dan orduban, Euzkadi'ren estuntza gustijak biſindu ta luſera jausiko dira.

Gaztela - zalekerijak gexotu dauskun euzko - gogua osatuten alegindu biaſ gara, ba, Euzkadi'ratuta dagon gaztela -zaletasun au ayenatuten dogun eguna, soin-estuntza iguingaſijok azkatuko dogu-an eguna ixango da-ta.

卐 卐 卐

—¿Euzkadi'ren gogua zelan abeſtzaletuko dogu, baña?

—Euzko-edestija ikasijagaz. Euzko-elia ikasi ta geure aſteko aſtu-emon gustijetan euzkerea erabilijagaz.

Eſdel-egutegijak erosi ta irakuſi biaſian, euzkel-egutegijak erosi ta irakuſijagaz.

Euzko-gogua osatu ta abeſtzaletuko daben osakayak, euzko-elez idatziriko idaztijak dira, ta ele oſetan idazten diran oleſkijak eta abaſ.

Euzko-gogua abeſtzaletuteko, euzkerazko antzeſkijak be on-onak dira, eſderaz egiten diran mitiñik ospetsubenenak baño obiak ziñez.

Gogua abeſtzaletu daigun, ba, ta ganerantzeko gustija, benetan abeſtzaletuten dan euzko-goguak ekaſiko dausku.

URIBITAŔTE'TAŔ IBON.

Izpar urtenenak

Aldunegikuak. - Lapurketea. - Euzko-aldunak Madrid'era.-Irungo oporketea.-Ostikolari-aldrak eta ostikoketea.-España'ko izparrak. - Jaurbatza - aldaketa. - Cuba'ko egon - eziñak

Larunbateko lapuſketea iraſkola baten jazo zala adirazi ebenak, okeſ egozan, Martin abixendunaren ekaſ - eruatzazko landoletan ixan zalako. Ostu ebezan 2.970 lauſleko.

卐 卐 卐

Novia de Saltzedo-txaidian eztabaida baten ondorengo txaſa jazo zan. Alvarez eta Beunza-anayen aſtian itzen batzuk ixan ziran eta ardan-etxetik uſten ziranian, Beunza anayak izkilu bategaz sutotsa jauſti eutson Alvarez oſi. Sosolistoen alderdikua zan eta berialₐ il zan.

卐 卐 卐

España'ko zozketeak Bizkai - alderuntz etoſi nai dau aspaldijon. Orainguan Zornotza'ra eldu da bigaſen sarija. Larogetamaſ anei lauſleko ixan dira.

卐 卐 卐

Aldunegijan etzan izpaſik. Instituto baſijatzaz jardun geban Galano jaunarekin. Beriala iragiko dabe etxe baſiren bat, baña biſaſtian Koldobikataſak euki eben jauregijan jaſiko ei-dabe.

卐 卐 卐

Jauſliak agertu eban bere asaſia larunbateko opoſketea zala-ta. Alderdi gustijetakuai itxi biaſ yakela azke-azke euren zabalgundia egiten esan eban eta García Sanchiz'egaz egin zana, txaſto egiña zala.

卐 卐 卐

Abanto-Zierba'n dagon olotegi edo ota batetik ogeta sei olo ostu dabez. Reguero' taſ Bernarte'renak ziran.

卐 卐 卐

Bart uſten ziran Madrid'erantza euzko -aldunak. Agiſe, Robles Arangiz, Toſe, Bikuña, Leizaola eta Kareaga juan diran euzko-araudijaren aldez zintzo jokatuteko asmoz.

卐 卐 卐

Bilbao-Abando'ko Uri - Buru - Batzaſa'k ixan dabezan batzaſai amayera ona emon yake. Alderdikide gustijak nasai geratu dira au entzun diran atzalpenakaz.

卐 卐 卐

Irun'go uri osuan opoſketea egin daroe. Udalak uztu deuax bere jaſlekuba eta saloki gustijak itxiſa dagoz. Olaetan, be, ezta lanik egiten. Opoſketa oſek gaſantzi aundija dauka, Madrid'eko erabagijak ondatuko dabela ui edeſ ori.

卐 卐 卐

Sabasten deunaren eguna zan ezkero atzo, jai edeſak ixan ziran Donostia'n. Antzokijetan eta jai-tokijetan notintza andijak batu ziran. Euzko-antzeſki sariketeak, be, ixan ziran.

卐 卐 卐

Ostikolarijen aſtian partidu onena igandian jokatu zan. Athletic eta Oviedo'k erakusten emon eben zelako jokolarijak diran. Aldra bijok ondo baño obeto jokatu eben. Bilbao'taſok garale uſten ziran lau tantuzko baldiaz.

卐 卐 卐

Barcelona'ta Arenas'ek be jokaldi bat ixan eben Barcelona'ko Las Corts-zelayan. Katalandaſak txapeldun uſten ziran lau tantugaz.

卐 卐 卐

Barakaldo eta Racing'ek Inferniño-zelayan ekin eutson ostikoketeari. Aſotzak nagosi uſten ziran tantu bategaz.

卐 卐 卐

Atotxa-zelayan, ostera, ikera galanta jasan eben donostiaſak. Madrid'taſak irebaziko eutsenik ametsetan be ezeben uste, baña tamalez iru tantu aſotzak eta Donostia'kuak baperezean geratu ziran.

卐 卐 卐

Ona emen ostikolari-aldrak zelan dagozan:

Lenengo Athletic amasei puntugaz. Bigaſen Madrid, amabostegaz; irugaſen Donostia amalaugaz; laugaſen Racing, amairugaz; boskaſen Barcelona, amabigaz; seigaſen Español, amaikagaz; saspigaſen Valencia, amaigaſen Español, amaikagaz; saspigaſen Valencia, amaikagaz; zortzigaſen Beti amaikagaz; bederatzigaſen Oviedo amaſegaz eta azkenengo Arenas, saspigaz.

卐 卐 卐

España'ko izpaſik uſtenenak Martínez Barrio'en itzaldija eta Largo Caballero' rena. Victoria-antzokijan itzaldija egin eban eſkaltsein orek eta España'ko jauſbatzaren asmo-araudi osua atzaldu eban.

卐 卐 卐

Cine Europa'n mintzatu zan Largo Caballero. Lerroux'en kaltez esan ebazanak, eztiraₐ txantxetako gauzak, baña ezkeſ-goſijai egin eutsen deyak, gaſantzi geyago dauke. Langile-alderdi gustijak alkaſ aſtu bai? eta aberatsen auſka ekin biaſ dautsela iñuan.

卐 卐 卐

Acción Popular alderdikuak, be, batzaſtu ziran Opera deritxon antzokijan. Alderdi oſetan bazkide diran lau gaste mintzatu ziran eta uskuſtza-zale euren burubak oſaztu ebezan.

卐 卐 卐

España'ko auziiegi gurenan asi diran 1932'gaſen uſteko bakaldaſen matxinadeatzazko auzi-agirijak. Gaſantzi andiko auzijak darabilez, gudalburubak ixan ziralako matxinada oſen asmatzaliak.

卐 卐 卐

March jaunak España'ra etoſi gurarik -edo, baimena eskatu ei-dautso jauſbatzari, baña "Informaciones" ek diñuanez España'ra etoſteko asmorik eztauka.

卐 卐 卐

Bijaſ batzaſtuko dira Latetxian Euzko -araudijatzaz diñardubenak. Gaſantzi andija dauka batzaſ oſek eta bertan erabagiko dabe auſera edo atzera egingo daun araudi oſek.

卐 卐 卐

España'ko jauſbatzaren aldaketaren bat ixango da egun oneitan. Rico Avello'k eztau iraun nai bere jaſlekuban. Ordez Martínez Barrio jaunak jaſiko da.

卐 卐 卐

Eſkaltsein dan Pita Romero jaunak Roma'ra dua, Doipurubaren auſian España'ko ordezkarija ixateko. Doibatzagaz bakiak egin gura dauz España-Eſkalak.

卐 卐 卐

Lugintza-arazoen otsen dan ministrubak erabagi dau Nabaſa'ko luſ batzuk lateſijaganatutia. Ansaldo deritxonarenak ziran luſok eta oran "Reforma Agraria" dalako ori dala-ta, laſeſijaren eskubetan dira.

卐 卐 卐

Cuba'ko gora-berak baketuten asi dira. Ikasliak juaten dira juan ikastoletara ta gudarijak, be, baretu dira.

Euzkal - Irratsayoak

"BASARRI"

Bi uſteko lan betearen ondoren, eungaſen sayoraño eldu zaizkigu oraintxe.

Itxura onena ala izanik, eungaſen ifatsayo ori, ospe aundiz jaitu nai gure gizonak. ¡Aſazoi dute!

Erabaki ori, pozgaſi ta atsegiña da efiarentzat. Euzkaldun geyenok zoratzen utzi gaituzte, egun ortako jayen beſia entzun ondorean.

¿Zer izango dan?

卐 卐 卐

Ez derizkiot bidezko, egitaraua azaltzen ni astea. Berak ere denboraz egingo dute ori.

Gure izpaſingi jatoſak aditzera emango dute garaiz, zer da nola izango dan.

Baña... zerbait aitatzea ere ez da iñoren kalterako izango.

Ba, gure ifatsayo antolatzale jatoſak, eungaſen sayoa ilaren 28'an betetzen dute.

Ta egun ori beaſ bezela jaitzeko, Kursaal antzoki edeſean, agerkai entzungaſia degu.

Ordu edeſa deritzaigu aukeratu dutena. Aſatsaldeko ordubitatik lautara izango baita.

Aſatsaldeko sayoak obetago entzuten dirala esan oi dute: ta nere ustez itxurazkoa da. Beste ifatetxerik ez baita aritzen ordu oſetan.

Euzko-Abesbatza ta "Orquesta Filarmónica" buru dirala antolatutako sayoa da au.

Badakizute, Euzko-Abesbatzak alde guzitan zabaldua daukan ospea.

Onen antzeko Abesbatza gutxi dira oso. Olaizola ospatsuak ezin gauza txikirik eta kaxkaſik egin. Oſen izenak, Europa osoan aſo aſo koſitzen baitu.

"Orquesta" au ere beſiz, edeſetakoa dala diote.

Zati edeſik entzun beaſko degu bi batz auengandik.

Bakarkako abeslariſik bikañenak ere an izango dira. Txistulari buruak ere bai.

Izlari, oleſki esale, antzezlari, bertsolari, soñujole, danetik, danetik zerbait, irakuſle.

Eleſti bidean auſera goazela nabaitzen degu. Euzkal antzeſki edeſ asko antzezten da gauſ Donosti an ere.

"Txanton Pipeſi" ta "Amaya" esantzeſki zoragaſian edeſtasuna oraindik nabaitzen degu. Urte baſuan izan diran ikuskizunik gaſantzizkoenak euskerazkoak izan dira.

Gañontzean ere, antzeſki politak izan dira; ta oraintxen ere, Deun Sebasten egunerako, Alzaga'ren lan bat iragaſita ikusten degu Deun Toma eguneko auſen jai zoragaſi ura ere gogoan daukagu. ¡Edeſa baizan!

Ta orain ifati bidez, mundu guzira adieraziko dan jayaldi berezi onek asko poztutzen gaitu. ¡Auſera goaz, jaunak!

卐 卐 卐

Zubimendi ta Arzeluz'i egin gentzayoken omenik gozoena, egun oſetan iſatizkiñera inguratzea da. Inguratu ba euskotaſ zintzoak, sorginkerizko tramankulu orien auſ era, ta "Kursaal'eko "txalo buſundarekin batera, txalotu, txalotu bai, zuek ere, bertako ertilari trebeakin batera, Zubimendi ta Luzeaſ euzkaltzale puſukatuen izena.

卐 卐 卐

Ta an Donostia'n tramankulu aurean jaſi beaſ degunok, goazen gogotsu ta alai euzkera berdin gabearen bikaintasuna adieraztera.

Ta esan dezagun, Zubimendi oleſkari azkaraſekin batera:

Ua, ua emendik otsa
abil azkaſ, bizkoſ abotsa!
Gure izkuntzan aguſ laztana
ludiko euzkaldun danorengana.
ortxe dijua...
Ua... Ua...!

Euzko eſiko anai danori
eman akiok aguſ beroa,
bere baſendik irtendakoa
dek gauſko oyua:
Ua... Ua...!

(Amaya)

Euzkotar umien aldez

ASTOA TA IDIA

(Gabon ipuña)

(Jaſaipena)

Eta ¿Gabon-zugatza? Arte-abaſ eta gorosti abaſakaz egin du, umeak asko maite dituan etxeko adizkide batek, eta iñoiz baño edeſkiago erten diola dio.

Ezin zenbatu leikez bere aboaſetatik txintxilika dauden gozoki ta jostaluak.

Gozozko gaztañak margodun ingietan ba tuta, txokolatezko kanikak eta azakaponak, aſautzen aundieradun gozoak, galtzara aſien margodun eta itxuradun karameluak, gozozko baba beltzak, gozozko baratzui sortak, gozozko tipulak...

Iñoiz-ez-iñoiz umien begiak etzuten alako zugatzik ikusi. Mutiltxo batek esan zuan, bere iritzian itxasoko ondaſak baño ugariago zeudela zugatz artan gozoak, eta nexka batek beſiz gau izaſatuan baño argi geyago zeudela Jayotza aſtan.

Umetxoen poza berdiñik gabia zan, Donokian dauden gotzonak neuſigabeko Ondasunen eta neuſigabeko Edeſtasunaren auſian nabaitzen duten pozaren antzekoa zan da.

卐 卐 卐

Bat batera, eurak ez zegiten durundi bat entzun zuten.

Danak batera gorantz begiratu zuten, baña ezeſ ikusi ez zutelako alkaſi begira gelditu ziran.

Ego bigun askok, aruntz eta onuntz ormak igortziko baizitukiezan bezelako durundia entzuten zuten umeak.

Itzuak izan ba'ziran, ludi guztiko uso ta usokumeak gela aſtan saſtu ta erten zebiltzala esango zuten.

Baña, begiak zabal-zabalik euki aſen ezer etzuten ikusten.

Zer ete zan igeſi eziñik alkaſi begira zeudela, gauza aſigaſi bat gertatu zan ordea, eta au danak ikusi zuten.

Jayotzako irudi danak igitu egin ziran eta lekuak aldatu zitusten, batere zarata gabe.

Txistularia mendi tontoſen gañean ager tu zan, oloak, iñori baimenik eskatu gabe estalpean saſtu ziran. Aita Deun Joseba'k zer ete zan jakiteagaitik edo, kanpora erten zuan.

Iru Bakaldunen zaldiak beſtz ibayen erdi-erditik zijuazen, eta irudi asko luſean etzanda gelditu ziran. ¡Beste alako asko!

Lenengotik aldaketa abek poliki-poliki ta bigunki egin ziran, baña gerotxoago zalaparta aundiaz. Bai zirudian eun anei eskutxo zebiltzala gauza guztiak nazten.

Mendiak, beya jo ta ibayari bultz egiñaz aruntzago eraman zuan, eztalpeak daſ -daſ zegian luſikarak bultzako balio bezela, argi batzuek ere itzali ziran.

Gauza ikusgaſi oneri begira ume txikienak negaſari eman zioten, aunditxoagoak beſiz paſe zegiten.

Etxeko neskame zaſ batek esan zioten: —Umetxoak, naste-boſaste au, Donokian dauden umetxo ildakoak egiten dute, Gabon egunean Aita Jaungoikoak, luſera etoſi eta Jayotzak ikusten ibiltzeko baimena eman oi diote ta.

Irudiak noiz-edo-noiz geldiſik gelditu ziran eta beſiz ere ego durundi biguna entzun zan. Geroago ta bigunagoa, geroago ta ixilagoa, igesi juango bai litzakezan bezela.

Umeak deadaſka asi ziranean etxeko danak jo zuten Jayotza zegoan gelara.

Gauzak asteſtzen asi ziran eta jaun batek esan zuan: —Erdiko maya erori da ta augaitik irudi danak nastu dira. Oraintxe ipiñiko ditugu danak atzera lengo tokietan.

Asi ziran ba banaka-banaka irudiok bakoitza bere lekuetan ipintzen, eta danak ipiñi, ikusi, ta zenbatu zituztenean irudi biren utza ageſtu zan.

Jayotzako txoko guztiak miatu zitusten baña etziran ageſtu.

Irudi bi palta ziran: astoa ta idia.

AŔITOKIETA.

(Daſaike).



Deunen bixitza

Ildebontsa deuna, gotzaña

Toledo'n jayo zan zazpigaſen eundian Ildebontsa deuna. Aberatsak eta elizkoyak ziran aren gurasoak eta era guztitariko jakintzetan gaitu eben gaztea; batezbe ekandu garbietara oitu ta zuzendu. Bere ama izan eban gaztetan azlerik egokiena ta arduratsuena. Izaera bigunekoa zan berez Ildebontsa; soñez egokia ta maitagaſia; arekin ezertariko artuemonik euken guztien biotzak eſazki irabazten zituana zan.

Ildebontsa'ren osaba zan Eukeni deuna ta, a zerbait azi zanean, bere ardurapean artu eban onek. Geroago, baſiz, Sevilla'ko Ixidor deunarengana bialdu eben gizon jakintsu aren begipean gaituago ta ikasiago egin zeitean. Ixidor'en ondoan amabi urte egiñaz gero, bere gurasoengana Toledo'ra itzuli zan.

Bere sendikoak eukezan aberastasunak eta gañera gizarteko adizkidetasunak era guztitariko ospakundeak, zorionak eta atsegiñak eskeinten eutsoezan gazte azkaſ eta edeſari. Baña goragoko amesak aizatzen eban gaztearen gogoa. Jaungoikoarenganako maitasun biziak zauritu eban ordurako aren biotza. Gizarteak eskeinten eutsozan atsegiñak azpiratuta, lekaide-jantzia artu eban. Kosma eta Damen deunen lekaidetxean, Bedita deunaren araupean jaſi zan. ¡A zan naigabea aitarena ondorengotzat bere semea galtzean! Ama, baña, bestalde jokatu zan. Artu eban asmoan tinko irauteko itzez sutu ta adoretu eban.

Ildebontsa lekaidetxera bilduta bereala il zan ango lekaipurua ta, ain gaztea izan aſen, Ildebontsa autu eben aren ondorengo lekaipuru. Aldi atan il ziran bere gurasoak eta areinkandik artu zituan ondasunak, uskurtza-gauzetan eralgi zituan.

Geroxeago il zan bere osaba Eukeni deuna be ta Toledo'ko gotzain-aulkia utsik lotu zan. Au zala-ta, eſegearen eta eſiaren eskariari makurtuz, gotzain autetsia izan zan. Bere biotza bigunagotzeko ta bere burua apalagotzeko izan ziran gotzaintzak ekarkiozan arloak. Otordukoak uſi ta eskas izaten zituan. Txiroentzat soroskiak banatzen, oſatio, eskuzabal ageſtzen zan. Ogetamaſ beartsui banatzen eutsezan jakiak egunero Toledo'ko eleiz-nagusian. Gaurdaño iraun daun oitura da au.

Idazti asko beaſ litzakez Ildebontsa deunaren eguneroko egite aſigaſiak jaulkitzeko. Ekanduak garbitzeko egin zituan alegiñik aundienak. Itz-etoſi aundiko gizona zan. Bere itzaldietan, egiñetan eta jardunean oargaſiena biguntasuna zan. Gozo ta maitegaſi jokatzen zan beti.

Liburu asko itxi euskuzan. Liburu oſeitan erein eban bere jakintza sakona. Ara emen bereziki ikutu zituan gayak: Andere Miren'en sorkunde garbia; gizadiaren zorakeria; Aitaren Semearen eta Gotedunaren izate bereziak; ugutza; gizon ospatsuen bizitzak eta abaſ. Oſez gañera, itz neurtu, itzaldi, oleſki ta abaſ egin zituan.

Era askotara ixuri eban bere jakintza; baña bere jardunik gogokoena zan Miren 'en sorkunde garbia aldeztutia. Maitasuna kartsua eutson, ba, Jaungoikuaren Amari. Andere Miren'ek be argiro erakutsi eutson bere eskaſa. Ara zer gertatu yakon bein.

Orduko oitura zanez Tokio'n, Lokade deunaren egunean, eſege ta eſi-aldra ugaria jaſaika yoakiola Ildebontsa deuna eleiznagusira saſtu zan eta Lokade donearen ilobiaren gañean otoiketan egoala, obi-aſia astiro astiro igon eta edegi zan eta irureun urtez ilobi-baſuan egoan Lokade donearen gorpua andik urtenik, esku -laztanka diñotso Ildebontsa'ri: "Zu zaralako dirau eindiño nire Anderearen aintza ta ospa".

Bizitza luzea emon eutson Jaungoikuak Ildebontsa deunari. Irurogeta amabi urte beteta gero, il zan deun au 669'gaſen uſtean.

A.'TAŔ T.

BERMEO

BA-GARA-EDO.—Lasteſ datoſ Agate Deuna'ren egun ospatsuba ta aintzagaſija. Egun zoruntsuba berau.

Igez, bai dakixube eſiſaſ gaste maſiok Euzko-Langila ta Euzko-Gastedijakuak ¡ze edeſto abestu ebezan Agate Deuna'ren abesti samuſak eta poliſak txaiderik txaide, eta zelako oztetza andijak entzun pozkiro!

Auſten, be, ba—aztu ez daiskun antxiñako ekandu au—lasteſ asiko gara langile ta gastedikuak eralduta abesti onek ikasten.

Oſetan, ba, poztuko giñekez igez abestu eben gustijak eta beste asko be—geſtu ba 'legoz tuntuna entzuten dabenian euren ixen-abixenak emoteko.

Auſera mutilak, ba Agate Deuna'ren euzko-usaindun abesti onuratsubak ikasten. Eta batera, langile biaſ bakuentzako zeozertxu... batu euren ume kutuntxubai ogi zatitxo bat eruan dagijoen agora.

¡Eup eſiſaſ gaste bijozdunak!

UŔKIDI.

TXIKORO (ACHICORIA) BAKE

EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA

ISASONDO

IZPAŔ-BELTZA.—Ituſiotz ta Munduate'taſ Nikola il da.

San Juanak inguruan, Andazaſeta'ko gaxo-etxeratuzan, ta apuſka-apuſka desegin-duaz, Jaunaren eskuetan bere azken arnasa emandu.

Nork esan 32 uſteko gizon sazoizkoa, abeſtzaletasunaren-alde lan geyena egin-beaſtzuan garayan, ludia betiko utzibeaſtzuanik.

Nork esan, orain 20 urte, mutiko koxkoſa izan-aren abeſtzaletasuna bere españetan zeoilkien Nikolak betiko aguſ egin-beaſzigunik!

Nork esan, lenengo antzeslari aldrakoa, antzeslari bikaña, juandan uſtian lez, aurtengo neguan-ere ainbeste far eragiñazi gabe, utzi beaſgindutzenik!

Eta nork esan, bere senide, ama, Andazaſetako Lekaidetxoak, ta bertako apaiz zaintzale agurgaſiak, otoitz xamuſak-azken otoitzak egiñaz, eriotz on baten ondoren, ega egin dekala Donoki aldera!

Nikola! Goguanzetiagu ire gaxo-aldi luzean Andazaſeta'ra egiten ginduzten ikeſ -aldi-ayentan abeſtzaletasunaren alde ire españetatik irtentzen ziraden itz xamuſak! Ezgaituk aztuko Nikola! Bizi itzan egunetan bezelaxen, maitetasuna azalduaz, lagundu giñaken ludiari aguſ egiñiyoken tokitik Baratz Deunera; ludi ontarako betiko ire izatea izkutaturik gelditzuan toki Deunera.

¡Goyan bego, abeſkide on ori; ta eten gabeko aſgiak argitu beza bere gogoa!

Bere emazte, Maizataſ Miren, seme Imanol, bere ama, ezkon-ama, bere anai, ezkon-anai-aſeba, ta gañerantzeko senideai lagundutzen diegu daukaten atsekabean.

AU-EZ-BEAŔA.—Au idatzi ondoren jakitendet Arbila'taſ Jose Mari Donostia 'ko Eſuki-Etxian aspaldian gaxorik gendukak gizon sasoikoa-ere il dala.

Onen emazte atsekabetuari, bere sendi, ta aide ta guztiari laguntzen diogu une onetan daukaten atsekabian, ta irakuſle gustijori eskatzen zaitzute ildakoen alde otoitz egiteko.

MURUMENDI.

ZARAUZ

Eſiko beſirik euzkeratz ez dala agertzen, da itun antzean arkitu ditut irakuſle batzuk. ¡Lan guziak batera ezin egin ba nik rate?

Tamalgaſia lagun bat ez izan beaſa nik lan ontarako Zarautz'on "Balbide", "Aitz -goſi", "Aſitza" ta gañontzekoak nun zeratz?

Ia ba adizkideak, pixka bat esnatzen geran-edo...

BEŔIKETALDIAK.— Zarautz'ko Euzko-Etxeak, beriketaldi edo (charla) abeſkoyak antolatu ditu.

Igaro dan ostegunez asi ziran, ta bertan, Zinkunegi sendagile ospatzuak, gai jakingaſiak erabili zituan. Uſengo ostegunean, Eskudero izpaſkari gazteak itzegingo du. Nai duan guziak itza eska lezake.

¡Inguratu bada batzokira!

DEUN AGATE.—Gure abeslariak ekin diote lanari. Auſten izki beſiakin dira. Jaungoikua lagun, oſi onetan azalduko ditut oleſki oriyek. ¡Gazteak! ¡Jaſaitu oitura onari!

IDIAKEZ'EN ALDE.—Aſpidea zabaldua dago batzokian. ¡Abeſkide! Oraindik zeurea ordaindu gabea bazera, ibili bizkoſ, garaya da ta.

UDAL-ETXEA. — Osatu dirala utsik ziran aulkiak. Len botatako ziñegotziak ditugu ostera.

Zarautz'ko kontuak, ¡ora pro nobis!

BASAŔI

URKIOLA

ANDONI DEUNA'REN EGUNA. — Aspaldiko urtetan egin dabenik eguraldirik edeſena auſten egin dausku, oſegaz ezkera azaſe izan urkiolataſok. Goizian -goiz asi zan kistaſ zintzuak Urkiola'ratuten, eta amaſetako jaupa-nagusireko laguntalde edeſa aufkitu zan entzute aundiko mendi-tontoſ ontan; amaſetan asi zan Elizkisuna; lenengo "Tercia" abestu eta onen ondoren uſtero lez onetsi ziran opil edo ogi txikiak, alan pozez eruan eberan beſtaratu ziran kistaſ zintzubak euren etxe -tara. Amaſ deſdiak ziran jaupa nagusia asi zaneko; jaupa ori "Perosi,'rena abestu zan Abadiño ta Urkiola'ko abeslarijen aſtian, ta jaupa oſtako itzaldija aſgi ta gaſbi eſestazun aundijagaz egin eban Orue 'taſ Laurentzi Otxandijo'ko txaunburu jaunak, jaunak lagundu beyo uſte azkotan olakoxe itzaldi edeſak egiten. Jaupa oſen amayan abestu zan "Mirariak ugari" zaſi abestuten dan abesti edeſa Andoni Deuna'ren goſpuzti edo eſlikia emoten eben bitaſtian.

Aſatsaldian Aguſtza Deuna ta bederatziuſenen amaya; onegaz amaſu zan jai ori.

ANBOTOPE.

OTXANDIANO

Beti geſtuko antzezlarijak bakaldunen egunez antzeztu ebezan oidalako antzeſkijak: "Buſuntzija" eta "Gixon bikañak". Gustiz edeſto egon ziran. Azkenez "Katalin encuentra casa "antzeſki baſegaſija ikusi genduban. Orain "Iru Gudari" atara biaſ ei-dabe. Edeſto mutilak.

PELOTARIJAK.—Geure pelotari eſimiak diran Egia eta Otalora'k Bizkai'ko pelota txapelketean gurenda andija ixan eben Bermeo'koen auſka. Poztu gara. Ia gero txapelketean nagosi ixaten zarien.

ZORI-TXAŔA.—Mugartza'taſ Kastof i Olabe'ren taſantak atrapau eta il dautso iru urteko alabatxu bat. Atsekabian lagun gayakez.

IZPAŔ BALTZA.—Olaeta'ko "Aurtola" basetxian il da Untzalu'taſ Bartoloma geure lagun on eta abeſtzale zintzua dan Keledon'en aſea.

AGUŔTAU. — Emen aguſtau dogu Gazteiz'etik Bilboa'ra joyazala Robles Arangiz gure alduna ta bere lagun batzuk.

Aguſtau dogu Maurolagoitia'taſ Joseba Andoni eta bere sendija.

GOIKO-ITUŔI.

INGI BILDEGIA
Papelería del Oria
MORAIZ'TAR JOSEBA MIRENA
Teléfono, 1.° TOLOSA